



KONTSULTA FOROA

2020ko azaroaren 18a

GAI-ZERRENDA:

1. Agurra
2. Mugikortasun-planean hartutako erabakien eta abian dauden prozesuen aurkezpena

BERTARATUTAKOAK:

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	AUSENTZIAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoia eman gabe
Ostatuen ordezkaria	Javier Angulo			X
Taxien ordezkaria	Jose Ignacio López			X
Kirol-aisialdikoek ordezkaria	Hector García			X
Interpretazio-zentroen, giden eta bidaia-agentzien ordezkaria	Ainhoa Sarriegi		X	
Merkatarien ordezkaria				
Getxo Enpresa	Elena Cantera			X
Romo Bizirik	Ainhoa Calderón			X
Algortako Dendak	Amaia Amestoy Pilar Coria	X X		X
Ostalaritzakoek ordezkaria				
Algorta jatetxea	Monica Sésar			X
Neguri jatetxea, Portu Zaharra eta kirol-portua	Diego Castellanos Kotska Mandaluniz	X X		
Algortako tabernak	Jorge Alonso			X
Getxo Enpresa	Maria del Fresno	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	Iñigo Urkitza Maria Jesus Gorroño Mirene Zabalgogezcoa	X X X		
Hirigintza Arloa	Janire Ocio	X		



1 - 30 KM

Aurtengo maiatzetik aurrera, hiriaren erdigunean 30 km/h-ko abiadura muga ezarri da. Neurriaren helburua ibilgailuen eta bizikletaren elkarbizitza da, eta bizikletari lehentasuna ematea bidegorriak ez dagoen lekuetan.

2.- GETXO BIZI

Bizikleten alokairu zerbitzua. Egun dauden bizikletei bizikleta elektrikoak gehituko zaizkio (2021). Gainera, zerbitzua Barik sisteman integratzeko lan egiten ari da (gaur egun erabileraren kudeaketa independentea da), baita udalerrri artean erabili ahal izateko ere.

3.- BIZIKLETEN APARKALEKUAK Bizikleten aparkaleku seguruak jartzea, bizikleta lapurtzeko beldur diren herritarrek beren bizikleta pribatuak erabil ditzaten. Merkataritzako eta ostalaritzako mahaiek egindako eskaera.

Hirigintza Alorrek eskaerak jasoko ditu, 2021ean aplikatzeko plan bat baitago. Eskatu da eskakizunetan kale edo kokapen zehatzak jartzeko/proposatzeko. Ikus bizikleten aparkalekuen planoak.

4.- BIDEGORRIAK

Bidegorri sarea nabarmen handituko da. Ikus atxikitako dokumentua: Bidegorrien planoak. Urdina. 26,25 kilometrotik 41,25era igaroko da, hau da, mailaka 15 kilometro gehiago egingo dira.

Esan da ez dela ulergarria itsasora ematen duen zatian bidegorri bat egoteaz gain beste paralelo bat egotea Zugazarte etorbidean. Behin moilako bidegorria erabiltzeko modua aztertuta (gehienbat familiako aisia eta kirola) beharrezkotzat jo da bidegorri bat jartzea udalerriko gunee/auzo arteko joan-etorriak bereizita posible egiteko.

5 - GAINZA APARKALEKUA

Barne-erregelamendua urrian onartu zen, eta egun jendaurrean dago. Alegaziorik ez badago, premiaz jarriko da abian.

6.- TAO

TAOaren proposamen teknikoaren jendaurreko aldia

<https://www.getxo.eus/eu/gobierno-abierto/participacion/ser2020-01>

Azaroaren 19aren eta abenduaren 3aren artean, jendaurrean egongo dira proposamenaren planoak, Areetako Elkartegian, Algortako merkatuan eta Romo Kultur Etxean.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Egungo egoera: 1.414 plaza - Proposamen berria: 4.374 plaza.

Azalerako plazak handitzea, guztira:

1. zona.- Algorta: 715 plaza
- 2. zona - Areta: 1.062 plaza.

Zona berriak

- 3. zona - Santa Ana: 956 plaza
- 4. zona - Romo: 1.058 plaza
- 5. zona - Ereaga eta Portu Zaharra: 583 plaza (ekaina-iraila)

Espres zonak

Algortako metro-geltokiaren zabalguneko aparkalekuak eta Aretako Mesedeetako kalearen zati bat (gehienez 2 ordu).

Egoiliarrek beraiei dagokien gunean bakarrik aparkatu ahalko dute, merkataritza eta beste zerbitzu batzuei laguntzeko, zona espresetan izan ezik, bertan TAO-ordutegitik kanpo bakarrik aparkatu ahalko baitute: 14:00etatik 16:00etara eta 20:00etatik 09:30era.

Etxeko bi TAO txartel emango dira, eta egungo txartelaren prezioa honako hau da: 50 € urtean.

Ekarpenen aurkezpena: abenduaren 3ra arte

Interesdunek beren ekarpenak egin ahalko dituzte abenduaren 3ra arte, hainbat bitartekoren bidez, nahiz eta, COVID-19aren egungo mugak direla eta, ahal dela online egitea komeni den.

Honela planteatu daitezke iradokizunak:

Online inprimaki baten bidez, webgune honetan: <https://www.getxo.eus/eu/gobierno-abierto/participacion/ser2020-01>

edo

Getxo Elkartegian (Ogoño kalea 1, Areta) horretarako jarritako kutxetan, astelehenetik ostegunera, 08:30etik 18:30era, eta ostiraletan 08:30etik 15:00etara; Romo Kultur Etxean, astelehenetik ostiralera 08:00etatik 21:00etara, eta asteburu eta jaiegunetan 09:00etatik 21:00etara; eta Algortako azokan (Torrene, 4), 08:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera (larunbatetan, goizetik).

Planoak (aktan atxikita datoz):

- 1. zona: Algorta
- 2. zona: Areta
- 3. zona: Santa Ana
- 4. zona: Romo
- 5. zona: Ereaga - Portu Zaharra

Aparkamendu Araupetuaren Udal Zerbitzua arautzen duen Ordenantza. BAOren 239 zenbakian argitaratua. 2006ko abenduaren 18a, astelehena. 31.487. orrialdetik aurrera



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

6.1.- 1. ZONA Algorta

Bidezabal plaza ingurura eta Alango ingurura zabaltzen da. Ikus planoak, 1. zona, arrosa kolorea.

Algortako metro-geltokiaren zabalguneko aparkalekua: espres zona.

6.2.- 2. ZONA Areta

Zugazarte zonara zabaltzen da. Ikus planoak, 2. zona, arrosa kolorea.

Mesedeetako kalearen zati bat.

6.3.- 3. ZONA Santa Ana

Zona berria, Santa Ana auzoa deritzona. Ikus planoak, 3. zona, arrosa kolorea.

6.4.- 4. ZONA Romo

Zona berria; Santa Eugeniatik Gobelara. Ikus planoak, 4. zona, arrosa kolorea.

6.5.- 5. ZONA Ereaga

Udako denboraldian bakarrik, ekainetik irailera.

Loroen landa deritzonetik Portu Zaharrera. Ikus planoak, 5. zona, arrosa kolorea.

5. zonaren araudi horrek kirol-portuaren aparkalekuan duen eraginaren kezka helarazi da (aparkaleku hori ez badago araututa).

Udalari eskatu zaio esku hartu dezan neurri horiek kirol-portuan aparkatzeko aukerari kalterik ez ekartzeko (eskatu da hitz egiteko kirol-portuko elkartearekin eta Getxo Kaiarekin).

7.- BESTE BATZUK

7.1.- Algortako gasolindegia Nola dago? Zer egingo da? Azken titularrei lurzoruaren kutsadura garbitzeko eskatu zaie, haiei baitagokie. Oraindik erabakitzeke dago etorkizunean zer egin.

7.2.- Patineteak egun abian dagoen zerbitzua pribatua da. Udalak aukera eman du horrelako zerbitzuak eskaini nahi dituen beste enpresa batzuek zerbitzuak eskaintzeko.

7.3.- Bizikleten aparkalekua

7.4.- Disuasio aparkalekuak Leioan eta Ibarbengoan Aparkaleku horiek ez dira oso ezagunak, eta Getxoko enpresetako langileak kezkatu egiten ditu aparkatzeko beharrak; hori dela eta, proposatu da aukera horiek ezagutaraztea, beste udalerrri batzuetatik lanera datozenentzat. Une egokiena, TAO zona berriak abian jartzean.

Kostua: 0,7 € / eguna, metroa erabiltzen bada Leioatik Getxora joateko edo Ibarbengoatik Algortara, Aretara eta Romora.

7.5.- Auto elektrikoa Auto elektrikoak kargatzeko bi gune jarri dira (kirol-portua eta Gainzako aparkalekua).

Garraibide jasangarriagoak erabiltzeko kanpaina global bat egiteko edo kontzientziatzeko, sentsibilizatzeko beharra helarazi da.



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

8.- Erabakiak (ENPRESEN KONTSULTA FOROA; 2020/11/18):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Aktaren zirriborroa bidali, planoekin eta ekintzen epeekin	Ekonomia sustatzeko teknikak	2020/11/25
2. Enpresei gogoraraztea (bereziki langileei), aparkaleku zona berriak ezartzen direnean, disuasio aparkalekuak daudela.	Ekonomia sustatzeko teknikak	Ez da datarik aurreikusi
3. Alor eskudunari helaraztea komunikazio-, difusio- eta kontzientziazio-kanpainen proposamena.	Ekonomia sustatzeko teknikak	30.11.2021